



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

657/2018 Foru Agindua, abenduaren 21ekoa, ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak izapidetzeko gutxienerako zenbatekoak ezartzen dituena.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 64.1 artikuluan honela dio ordainketaren gerorapen eta zatikapenari buruz: «Borondatezko epean edo exekutiboan dauden zerga zorrak erregelamendu bidez finkatzen diren baldintzetan geroratu edo zatikatu ahal izango dira, zergadunak aurrez eskaturik betiere, honen egoera ekonomiko- finantzarioak denbora batez eragozten badio ordainketak ezarrita dauden epeetan egitea».

Beharrezkoa da nabarmentzea zorrotz aplikatu behar direla Zergen Foru Arau Orokorrak eta, hura garatzen duenean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Erregelamenduak (abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua) ordainketaren gerorapenak eta zatikapenak emateari dagokionez jar-tzen dituzten baldintzak. Horretarako, saihestu behar da baldintza horiek aipatutako foru arauan jatorriz zehaztutakoaz besteko helburuarekin erabiltzea, hau da, zerga zorren ordainketa errazteko helburuarekin ordaintzera behartuta dagoena aldi baterako egoera ekonomiko-finantzario batean dagoenean, betiere zorren zatikapen sistematikoa finantzaketarako bide bat izatea eragotzi-ta.

Bestetik, aipatutako foru arauak 64.3 artikuluan dioena aplikatuta (kopuru muga batzuk ezarri ahal izango dira, geroratze edo zatikatze eskariak onartzeari begira), ulertu behar da esparru horretan, baliabide publikoak hobeto aprobe-txatzeko eta bilketa sistema efizienteagoa lortzeko, mugak jarri behar zaizkiela gerorapen eta zatikapena onartu ahal zaien zenbatekoei ere. Hori horrela, ez lirateke izapidetuko prozedura horien bidez biltzekoa den kopurutik gorako kudeaketa kostua duten gerorapen eta zatikapen eskaerak.

Horrenbestez, 2014ean, efikazia eta efizientzia printzipioetan oinarrituta, egin behar ez diren edo deuseztatu eta baja eman behar zaien likidazioen zenbatekoak, bai eta bide exekutiboan bildu edo konpentsatu behar ez diren kredituen zenbatekoak finkatu ziren, betiere kobratzekoa edo konpentsatzekoa dena baino kostu ekonomiko edo kudeaketako kostu handiagorik ez izate aldera.

Efikazia eta efizientzia printzipioekin bat etorrira, foru agindu honen bidez, honako hauek finkatzen dira, ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izateko: aitorpen-autolikidazio bakoitzeko gutxieneko zenbatekoak; aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zor bakoitzeko gutxieneko zenbatekoa, zor horien bilketa Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean sinatutako lankidetzaz hitzarmenen arabera; eta, azkenik, zatikapenetik ateratzen den hileko kuotaren gutxieneko zenbatekoa

Horiek horrela, hau.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Aitorpen-autolikidazioaren gutxieneko zenbatekoa.

Ez dira izapidetuko aitorpen-autolikidazioen gerorapen edo zatikapenak, haietako bakoitzaren zenbatekoa 60 eurotik gorakoa ez denean.

2. artikulua. Aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorren ordainagiriaren gutxieneko zenbatekoa.

Ez dira izapidetuko aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorren ordainagirien gerorapen edo zatikapenak, haietako bakoitzaren zenbatekoa 60 eurotik gorakoa ez denean.

3. artikulua. Zatikapenetik eratortzen den hileko kuotaren gutxieneko zenbatekoa.

Zatikapenaren hileko kuota ezin izango da 60 eurotik beherakoa izan.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2018ko abenduaren 21a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. . (8585)